

Aste honetan Batzar Nagusia egin aurretik

EROSKI-K 2.000 KONTSUMITZAILETIK GORA ELKARTU DITU BAZKIDEAREN EGUNA OSPATZEKO

- **EROSKI kooperatibak milioi bat Kontsumitzaile Bazkide baino gehiago batu ditu EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian**
- **50 urteen ospakizuna dela bide, EROSKI bazkide kontsumitzaileekin harremanetan egon da, gizarteak eboluzionatu ahala haien premiei erantzuteko.**
- **Bertaratu direnek dirua biltzen lagundu dute bularreko minbiziaren eta minbizi ginekologikoaren ikerketaren alde**

Elorrio, 2019ko ekainaren 17a.- [EROSKI](#)k "Bazkidearen egun handia" ospatu du egun hauetan Bilbon eta Donostian. Topaketa hori irekita egon da kooperatibaren EAeko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako milioi bat Bezero Bazkiderentzat baino gehiagorentzat; horietatik 776.900 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dira.

Kooperatibak aste honetan egingo duen Batzar Nagusiaren aurretik, EROSKI-k beste bilkura batzuk egin ditu egun hauetan Kontsumitzaile Bazkideekin, eta 2.000 lagun inguru azaldu dira. Donostian eta Bilbon izan dira bilkura horiek, eta haietan, Kontsumitzaile Bazkideek bertatik bertara jakin dute joan den urtean zer-nolako eboluzioa izan duten kooperatibak eta haren proiektu nagusiek.

EROSKIren 50. urteurrenaren ospakizuna izan da Batzar Nagusia prestatzeko bi batzordeetako gai nagusia. Kooperatibako ordezkariak aztertzen aritu dira bi topaketetan urte hauetan nolako eboluzioa izan den erosteko estiloetan, produktuetan eta dendetan. EROSKIren jatorria ere gogorarazi dute —kontsumo kooperatiba txikien batuketa bera— bai eta haren ibilbidea ere, hau da, ekitatean oinarritzen den eta pertsonen osatzen duten proiektu bat, harremanen humanizazioa bilatzen duena eta etengabe gizarte gero eta bidezkoago baten alde egiten duena hala eskubideetan nola aukera berdintasunean.

Denbora honetan, EROSKI beti egon da konektatuta kontsumitzaileekin, gizarteak eboluzionatu ahala haien premiei erantzuteko. Eboluzio horretan, leial eutsi dio bere erro eta jatorri kooperatiboari, eta horrek berak balio izan dio bere xedeak gaurkotzeko, "hau da, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzea, eta hori bat etortzea gero eta kontsumo arduratsuago eta iraunkorrago batekin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Gainera, bertaratu guztiek dirua biltzen lagundu dute bularreko minbiziaren eta minbizi ginekologikoaren ikerketaren alde, Bilboko ACAMBI eta Donostiako Katxalin elkarteentzat.

Gobernu korporatiboa EROSKI n

Kontsumitzaile Bazkideek kooperatibaren bizimoduan parte hartzen dute hiru Batzorde Kontsumeristaren bitartez, zertarako eta kooperatibaren jarduera hobetzeko beren ideiekin eta iradokizunekin.

EROSKI n, gobernu korporatiboa era paritarioan osatzen dute kooperatibako Bazkide Langileek eta Bazkide Kontsumitzaileek. Hala, bai Batzar Nagusia —komunitate bakoitzeko 250 ordezkariarekin— bai Kontseilu Errektorea —hamabi kidez osatua, modu paritario berebean— demokratikoki aukeratzen dituzte, eta karguak hartzen dituztenek ez dute ordainsaririk jasotzen, gobernu korporatiboaren gainerako organoetako kideek jasotzen ez duten bezalaxe, esan nahi baita Kontseilu Soziala, Kontseilu Kontsumerista, Baliabideen Kontseilua eta Zaintza Kontseilua.

EROSKI n, erabakirik garrantzitsuenak kooperatibaren ordezkari-tza foroetan eztabaidatuta hartzen dira, zenbaitetan barne kontsulta zabalak egin eta gero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)